



HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

Data: 2025-11-12 **Bilera zenbakia:**43

Bilera ordua eta lekua: 18:00

Parte-hartzaileak: Garazi T., Iker A., Axier G., Amaia A., Nagore eta Nerea.

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Jai batzordetik zehazteko gelditu ginen lanak.

- Mozorro gaia 2026, proposamenak:
Ura, musika, pelikulak, bizitzaren zikloa, artistak, egunerokotasuneko objektuak, Euskal pertsonaia ospetsuak...
Telegramen bidez herritarren proposamenak jasoko ditu eta gero bozketa egingo dugu.
Egutegi argazkien bozketa eta kantu afariko tiketen salmenta bukatzean iragarriko dugu jendea ez nahasteko.
- Musika taldeak proposamenak.
Ostirala 18: Balantza erromeria (Taldearen konfirmazioa falta zaigu)
Larunbata 20: AÑUBE, Arene 6, Lehen lerroa, Brigade Loco, Kaparrak, LaTxama, Mirua, Oilar Beltzak, Nafarroa 1512, Stay away, Perlata, Tatxers, Elektrotzaraga...
Telegramen bidez herritarren proposamenak jasoko ditu eta gero bozketa egingo dugu.
Ateratako ordenean joango gara taldeekin harremanetan jartzen.
Egutegi argazkien bozketa eta kantu afariko tiketen salmenta bukatzean iragarriko dugu jendea ez nahasteko.
- Musika ekipoa zaharraren ordezkia, aurrekontua. Aurrekontu bat dugu baina Anderrekin zehaztuko dugu.
- Edalontzi eta platerak, aurrekontua. Martxan daude. Proposatu da hauek txukun mantentze aldera giltzapean jartzea eta eskaera egitea behar dituenak.
- Kalaka jolasak noiz egin, guraso elkartetik proposatu dute kirol astearen barruan egiten den mendi irteerarekin batera egitea. Kulturen datak zehaztean jarriko gara harremanetan Kalakakoekin.

2. Hurrengo ekintzak herrian

Ekintzen berri eman dugu:

- Egutegiko argazkien bozketa, azaroaren 20 arte.
- Kantu afaria Kuxkuxturekin eta liburu azoka; azaroak 21.
Kantu afaria Sarayola cateringarekin egingo da. Menua erabaki dugu (Urdaiazpikoa eta pate, arrain piper beteak, ondo-saltsaz betetako penkak, saiheztasun errea, ijito besoa+ ardo, kafea eta kopa)
Iazko prezio berean, 25€ langileak eta 18€ (langabetu eta ikasleak), tiketak 18 arte.

Gutxienez 40 lagun batzea da helburua, katerinak gutxieneko hori ezarrita baitu.

Arbelaitzekoek informazio eskatu dute; jende kopurua, asteartea 18an pasako diegu kopurua.

Katerinekoekin hitz egin dut eta hau da zehaztutakoa: Beraiek ekartzen dituzte platerak (berrerabilgarriak, zeramikazkoak) eta edalontziak kristalezkoak. Plastikozkoa erabiltzen duten gauza bakarra, amaierako likoreak zerbitzateko basoa da (beraiek hori zerbitzatu eta joan egiten direlako, hortaz, jendeak kopa lasai hartzeko aukera izan dezan). Hori bai, guk nahiago badugu horretarako kristalezko edalontziak erabili ditzakegu. Plateren muntaketa etab sukaldean egingo dute, ez dutela aparteko mahairik esan dit. Elkartek egin beharko lukeen gauza bakarra hortaz, mahaiak fisikoki nola jarri antolatu izango da. Gainontzeko kontu guztiak katerinekoak egingo dituzte.

- Emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna, elkarretaratzea.
- Gaztaina jana, azaroaren 29an. Egitaraua eta ordutegia pasa pantailetan zehazteko.
- Talo jana, ez da erabaki baina ziurrenik urtarrian izango da. Kulturako lantaldean erabakiko da.
- Euskararen eguna, abenduaren 3an. Asteazkena izanik hezitzaileek ekintza egingo dute.
- Olentzero eta Maridomingi, abenduaren 24ean.

3. Elkartetatik datozenak.

- Aipatu da Aramako jaietako partiduan jarrera oso desegokia izan zela Itsasondoko partaide batzuen aldetik, oso lehiakorrak eta giroa itsusitu zela. Aramakoei trasladatu eta hurrengo urterako beste kirol mota bat proposatzeko aukera mahai gainean jarri da.
- Itsasondo 2.0 aldizkarian, elkarrikeria luzea atalean, herriko heldu eta gazte bati egitea proposatu da. Galdera berdina, adin tarte ezberdinean.
- Pintxo potea udaberrian hileko azken ostiralean egingo den galdetu da; Arbelaitzekoek ezezkoa adierazi dute, lan handia dela hileroko egun batean egiteko soilik, oraingo formatoarekin jarraitzeko ados. Bizi nahikoek adierazi zuten ezetz, eta hortaz gazte eta guraso elkartearen esku legoke dinamika jarraitzea. Pintxo potea egin edo ez baloratu (gazte(guraso elkarteak)

4. Udaletik datozenak.

- 2026ko Aurrekontuen lanketa egingo da, inor zerbait aipatzerik balu zuzendu dadila udal taldeko kideren baten baten.
- Lurraldebusi goizeko 07:00etako autobusa Legorretatik abiatzea eskatu zitzaion, ikasleak Ordizia, Beasain zein GO07 (Donostira) autobusa hartzeko aukera izateko. Eskaera onartu da eta orain erabiltzeko deia egiten da. 07:04 Legorreta/ 07:07 Itsasondo, 07:10 Ordizia eta 07:27 iritsiko litzateke Beasainera.
- Elkarreetako justifikazioak (abendurako) – Arbelaitz plantilla bidali.
- Hitzarmenak berritzea (guraso elkartea)

5. Besteak:

- Euskara ikasteko guraso talde bat animatu dela aipatu dugu. Astelehen eta asteazken goizetan

elkartzen dira

- Txokoko platerak eta etab. egoera onean izateko beharra. Plater berrien eskaera egitean inbentario bat egingo dugu eta txokoa txukun jarri.
- 2025 kultur ekintzen balorazioa urtarileko Herri Bizitzan azalduko ditugu.
- 2026 kultur ekintzen proposamena, azaroaren 19an bilera egingo dugu, 18:00etan. Deialdi berria egin nahi dugu lantaldea osatzeko. Urtean 5 bilera dira. Elkartetatik datozen data esanguratsuak esan, mesedez.
- Arbelaitzeko postarekin arazoak daude. Kodeak behar ditugu pasahitza berreskuratzeko. Ea kodeak topatzen ditugun udalean.
- Guraso elkartetik komentatu dute ea bilerak astelehen eta asteartetan egin daitezkeen, Nereak ezintasuna azaldu du. Beste eragileekin koordinazio dela eta pertsonalki dituen beste konpromiso batzuk medio. Guraso elkarteko kide bat bertaratu daiteke eta momentuz horrela mantenduko ditugu, beste gurasoa bertaratzeko egun puntualen batan aldaketa egin dezakegu. Bilerak 17:30ean egingo ditugu.
- Telegram talde berri bat egingo dugu. (Garazi, Iker, Amaia, Axier, Nagore, Udala, Aitor G. (galdetu) eta Mari (ordezkaria aldatzen den galdetu)

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Kantu afarirako deialdi berezia egin elkarreetan</i>	<i>Denok</i>	<i>Azaroak 21</i>
<i>Jendeari egutegiako argazkiak bozkatzeko animatu</i>	<i>Denok</i>	<i>Azaroak 20</i>
<i>Jendeari mozerro gaia eta musika taldeen proposamenak egiteko animatu</i>	<i>Denok</i>	<i>Telegramen zabalduko dugu data</i>
<i>Gazteek eta guraso elkarteak udaberrian pintxopotea egin nahi duten erabaki</i>	<i>Guraso elkarteak /gazteak</i>	<i>Hurrengo batzorderako</i>
<i>2026ko ekintzak, elkartetako datak pasa</i>	<i>Denok</i>	<i>Ahal duzuen azkarren</i>
<i>Dirulaguntzen justifikazioa egin</i>	<i>Elkarreetak</i>	<i>Abendurako</i>
<i>Kulturako bileraren deialdia egin</i>	<i>Denok</i>	<i>Azaroak 19</i>
<i>Batzordetik eratorritako lanak (galdetegiak, katerina, bozketak, kultura deialdia, telegram, plantilla Arbelaitz, posta)</i>	<i>Nerea</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: HERRI BIZITZA BATZORDEA, URTARRILAK 14, 17:30		